

Agurain-Arabako Lautada

11,5 km | IBILBIDE ZIRKULARRA ERRAZA | 319m | Walking 2h. | Running 1h. 10' | www.walkingandrunning.es

OPAKUA > PEÑARROYA (1.070m) > BAYO (1.211m)



Sorginetzeko trikuharria

Ibilbide honi esker Entziako mendilerroa ezagutuko dugu, Nafarroako Urbasa mendilerroaren luzapen geologiko eta biologikoa, bai eta Legaireko landak ere. Ibilbidea Opakuako mendatetik abiatzen da, GR 282 Artzaintzaren naturbidetik, hain zuzen; ibilbide osoan zehar bidea erakusten duten zutoinak aurkituko ditugu. Han-hemenka begiratoki ederrak daude: Peñarroya, Bayo eta Mirutegi; behera begiratu eta Arabako Lautada ikusi ahal izango dugu.

Aske bazkatzen diren abereak eta pago bikainak aurkituko ditugu, eta historiaurreko gizakien berri ematen diguten mendiko trikuharriak eta menhirrak ere bai. Ordokirako bide erraza denez eta ikuspegi ederrak daudenez gero, mendizale asko ibiltzen dira hemendik.

Agurainen A-2128 errepidea hartu behar da Opakuarako norabidean. 8 kilometro inguru gidatu ondoren Opakuako mendatera iritsiko gara, eta kartel batekin adierazita dago gailurrean gaudela; bertan, eskuineko aldean, aparkaleku txiki bat dago. Hortik hasten da ibilbidea.

Opakuako mendatetik GR-282 Artzaintza Bidea igarotzen duen ibilbidea hasten da. Errepidean metro batzuk atzera eginez seinalea aurkitu behar da (📍 1), begiratokirako noranzkoa eta GR 282 adierazten dituen. Segituan ikusiko dugu seinalea (📍 2). Hortik Arabako Lautadako bista zoragarriak ikusi ditzakegu: laborantza mosaikoa, herri txikiak, Uribarri Ganboa urtegia eta urrutiago Gorbeia eta Aizkorriko parke naturalak. Egun eguzkitsuetan Gorobel mendizerraren silueta ikusi daiteke.

Ibilbide leuna da, eta une oro egurrezko zutabe adierazleak daude. Ibilbidean etengabe ezkerreko aldean Arabako Lautada ikusten da.

Gure bidea Urbasarako noranzkoan doa (📍 3), eta bertan 1.000 metro baino gehiago kokatutako hainbat begiratoki panoramiko daude. Aske bazkatzen diren abereak eta pago bikainak aurkituko ditugu, eta historiaurreko gizakien berri ematen diguten mendiko trikuharriak eta menhirrak



Walking & Running ARABA-ÁLAVA

ere bai. Ordokirako bide erraza denez eta ikuspegi ederrak daudenez gero, mendizale asko ibiltzen dira hemendik (📍 4a) (📍 4b).

Artzaintza tradizio handiko zenbait gune igaroko ditugu, eta horien artean nabarmentzekoa da Entziako Partzuergoa, non orain dela urte askotatik zelai eta basoen komunitate aprobetxamendua gauzatzen baita.

Goraka goazela erpin geodesiko batera iritsiko gara (📍 5a) behera joaten hasi arte (📍 5b) Bayora bidean (📍 6); tontorretik Mirutegi (📍 7) ikusi daiteke eta aurrean Aratz Aizkorriko mendizerra; merezi du tartetxo bat hartzea horiek ikusteko.

Bueltako bidea bide beretik egingo dugu arka zuriei eta gorriei jarraituz, partzuergo (📍 8) eremu zabalera eramango gaituen desbideratzera iritsi arte. "Partzuergoa" basoa mankomunitatean aprobetxatzeko modua da, eta Erdi Aroan du jatorria. Hala, zenbait udalerriri eta/edo hiribilduri basoaren jabetza eta disfrutatze eskumenak ematen dizkio. Gipuzkoa hegoaldeko eta Araba iparraldeko eredia da.

Partzuergoa igaro ondoren ibilbidearen azken zatia errepidetik egingo dugu, Opakuako mendateraino.



Interesguneak

- San Bitor ermita.
- Aizkomendi eta Sorginetxe trikuharriak.
- Gazeoko eta Alaitzako pinturak.
- La Leze.
- Garaioko probintzia parkea.
- Mendixurko ornitologia parkea.

Ibilbide gehiago hemen

www.alavaturismo.eus
www.arabakolautada.eus

Agurain-Salvatierra 📍

araba álava
foru aldundia diputación foral

alava
turismo.
elis



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

TORIBIO, MENDIZERRETA
ETA KONTRUINDI SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO